


# 2021

## TXOSTENA MEMORIA

elkarkidetza
PENTSIOAK
LEHENTASUNEZKO ENPLEGUKO BGAE
EPSV DE EMPLEO PREFERENTE

Elkarkidetzak pandemiaren bigarren urte baten testuinguruan ekin dio 2021eko ekitaldiari, gero eta suspertze ekonomiko handiagoa ezaugarri duen agertoki batean, nahiz eta oraindik nolabaiteko ziurgabetasun orokorrarenpean, oraindik ere agerikoak dira gizartean, ekonomian, enpresen bilakaeran eta pertsonen bizitzan jasandako ondorioak.

Lehenengo erreferentzia, eta berri ona, 2021eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiari buruzko emaitzekin aurkezten da. Ekitaldi horrek % 8,82ko errentagarritasuna lortu du, eta azken hamar urteetan % 5,40koa izan da. Hori inbertsioen kudeaketa eraginkorraren ondorio izan da, bai maila globalean, bai gure ingurune hurbilean, euskal enpresa-sarean zuzeneko inbertsioa sustatuz.

Errentagarritasun horri esker, 2022rako pentsioak, Prestazioen Erregelamenduan ezarritako gehieneko ehunekoan hobetu dira, eta Erakundearen kaudimena nabarmen indartu da.

2021eko ekitaldian, Elkarkidetza Enpleguko Lehentasunezko BGAE bat izan da, gizarte-aurreikuspen osagarriaren eredu eraginkorrenari eta erreferentziazkoenari gordetako kategoria, eta, ziurrenik, erakunde publikoetatik lehentasunezko arreta eta laguntza jasoko ditu.

Horrez gain, arriskua estaltzeko ekarpenen ehunekoa berregokitzeari ekin dio, % 10etik % 8ra jaitsiz. Horri esker, heriotzagatiko edo ezintasunagatiko prestazioen estaldura aldaketarik gabe mantenduz, bazkideen etorkizuneko aurrezki eta pentsioetarako ekarpenak bi puntu handituko dira, % 90etik % 92ra.

Kaudimena hobetzeak, adostasunez jorratutako hipotesi teknikoak egokitzeak, arriskuen kudeaketa egokiak eta inbertsio-politika doituak jasan behar ditugun merkatuko arriskuei egoera hobean aurre egiteko aukera emango digute.

Hori guztia Gobernu Organoetako kideen laguntzarekin eta lankidetzarekin egin da, bereziki, Gobernu Batzordea osatzen dutenekin. Nabarmentzeko moduko adostasun eta konpromiso-mailarekin. Kudeaketa-taldea osatzen duten pertsonei eskerrak eman nahi dizkiegu egindako lanagatik eta konpromisoagatik.

Elkarkidetza ha abordado el ejercicio 2021 en el contexto de un segundo año de pandemia, un escenario caracterizado ciertamente por una reactivación económica creciente, aunque todavía bajo una cierta incertidumbre general, evidentes todavía los efectos sufridos en la sociedad, la economía, en el devenir de las empresas y la vida de las personas.

La primera referencia, y buena noticia, se presenta con los resultados relativos al ejercicio cerrado al 31 de diciembre de 2021, que ha alcanzado una rentabilidad de un 8,82 %, que anualizada en los últimos diez años es del 5,40 %. Ello ha sido consecuencia de una gestión eficiente de las inversiones, tanto a nivel global como en nuestro entorno más cercano, fomentando la inversión directa en el tejido empresarial vasco.

Esta rentabilidad ha permitido mejorar las pensiones, para el año 2022, en el porcentaje máximo establecido en el Reglamento de Prestaciones y fortalecer, de manera muy relevante, la solvencia de la Entidad.

Durante el ejercicio 2021, Elkarkidetza se ha constituido en una EPSV de Empleo Preferente, categoría reservada al modelo más eficaz y de referencia en previsión social complementaria, caracterización que presumiblemente recibirá una atención y apoyo prioritario desde las instituciones públicas.

Adicionalmente, ha abordado un reajuste en el porcentaje de las aportaciones para la cobertura de riesgo, bajando del 10 % al 8 %, lo cual permitirá que, manteniendo sin modificación la cobertura de las prestaciones por fallecimiento o incapacidad, se incremente en dos puntos las aportaciones para ahorro y pensiones futuras de los socios y socias, que pasará del 90 al 92 %.

La mejora de la Solvencia, la adecuación de las hipótesis técnicas abordada por consenso, una adecuada gestión de los riesgos y una política de inversiones ajustada nos permitirá afrontar en una mejor posición los riesgos de mercado a los que estamos expuestos.

Todo esto ha sido posible con el apoyo y colaboración de los miembros de los Órganos de Gobierno, especialmente, de los que componen la Junta de Gobierno. Con un nivel de consenso y compromiso dignos de resaltar. Con el trabajo de las personas que integran el equipo de gestión, a las que queremos agradecer su trabajo y compromiso.



**Sainz de la Maza Arrola, Karmelo**
Presidentea / Presidente



**Aldasoro Iturbe, Amaia**
Presidenteordea / Vicepresidenta

## BAZKIDE TALDEA

## COLECTIVO ASOCIADO

464 instituzio daude integratuta. Hau da, orotora, 29.859 pertsona ditugu, eta horietatik 6.960 pentsiodunak dira eta 22.899 aktiboak.

2021ean, 1.213 alta berri egon dira, eta ekarpenik egin gabe zeuden 150 pertsonek ekarpenak egin dituzte berriro.

Están integradas 464 instituciones. Contamos con 29.859 personas de las que 6.960 son pensionistas y 22.899 activos.

Durante el año 2021, se han dado de alta 1.213 personas y han reiniciado el pago de las aportaciones 150 personas.






## Taldearen piramidea — Pirámide del colectivo




## 2021ean eragindako prestazioak — Prestaciones causadas durante el año 2021




Erretiroak honela banatzen dira: 527 borondatezkoak eta 207 nahitaezkoak. Borondatezko erretiroak urtean eragindako prestazio guztien % 54 dira.

Pentsiodun berrien % 43k errentan kobratu dute, osorik edo zati batean. Erretiroaren prestazioan oinarrituta, talde honek batez beste urtean 2.533,84 euroko biziarteko pentsioa eta 29.345,90 euroko kapitala kobratu ditu.

Eragindako prestazioen % 57 ez dira gutxieneko pentsiora iritsi; horregatik da garrantzitsua ekarpenak etenik gabe eta denbora bitarte luzean egitea.

Las jubilaciones se desglosan en 527 voluntarias y 207 forzosas. Las jubilaciones voluntarias suponen un 54 % del total de las prestaciones causadas en el año.

El 43 % de los nuevos pensionistas han cobrado en renta, total o parcialmente. Centrándonos en la prestación de jubilación, este colectivo de media ha cobrado una pensión vitalicia anual de 2.533,84€ y un capital de 29.345,90€.

El 57 % de las prestaciones causadas no han alcanzado la pensión mínima, de ahí la importancia de realizar aportaciones sin interrupciones y durante un período largo.





## Inkesta — Encuesta

**“Elkarkidetza gomendatuko zenuke?”**

2021ean egindako inkestan, babes-maila % 91,04koa izan zen aktiboen taldean, % 93,98koa pasiboen taldean, eta % 97,84koa, berriz, espedientea tramitatu berria duten pasiboen taldean.

**¿Recomendaría usted Elkarkidetza?**

El grado de apoyo obtenido en la encuesta realizada en 2021 es del 91,04 % del colectivo de activos, de un 93,98 % del colectivo de pasivos, y del 97,84 % del colectivo de pasivos tras realizar la tramitación de su expediente.

## Ekarpenen eta prestazioen bilakaera — Evolución aportación y prestaciones

Grafikoan, erretiro aurreratuen ondorioz prestazioek azken bi urteetan izan duten hazkundea ikus dezakegu. Kolektiboaren heldutasunaren ondorioz, prestazioak ekarpenak baino handiagoak dira.

En el gráfico podemos observar el crecimiento de las prestaciones durante estos dos últimos años motivado por las jubilaciones anticipadas. Fruto de la maduración del colectivo, las prestaciones son superiores a las aportaciones.




## Prestazioak eta beste ordainketa batzuk — Prestaciones y otros abones

2021.urtean ordaindutako prestazioen eta bestelako ordainketen zenbatekoa.

Importe de las prestaciones y otros abonos pagados en el año 2021.



## KUDEAKETA EKONOMIKOA

**Finantza-merkatuen bilakaera 2021ean**

2021. urtean ekonomia eta, oro har, finantza-merkatuak suspertu egin ziren. Herrialde garatuetan txertaketaprozesuak aurrera egin zuenez, ekonomiak ireki egin ziren eta mugikortasunak gora egin zuen. Familien aldetik, ondasunen eskariak gora egin zuen, enplegua suspertu izanaren, zerga-pizgarrien eta moneta-politika oso laxoaren ondorioz. Bestalde, hornidura arazoak sortu ziren hainbat jarduera sektoretan, eskaintza mugatua eta garraioari ezarritako mugak zirela eta. Eskariaren gorakadarekin eta eskaintza mugatuarekin batera, energia kostuek gora egin zuten, inflazioaren igoera eraginez. Urte amaieran, Banku Zentralak beren moneta politika birpentsatzen hasi ziren. Txinak, bere aldetik, urte korapilatsua izan zuen, hainbat ekimen erregulatzaile egon baitziren teknologiaren arloko enpresen ahalmena mugatzen saiatzeko eta krisia egon baitzen higiezinen hainbat sustatzaile handitan.

**Ekonomiak berriro irekitzea, eskariaren booma eta hornidura-arazoak**

Txertaketa-prozesuari esker, mugikortasuna hein batean berreskuratu ahal izan zen eta ekonomiak berriro ireki ziren. Enplegua suspertu izanari esker, familiek konfinamenduan zehar metatutako aurrezkiak eta gobernuek ezarritako laguntza fiskalek ondasunen eskaria nabarmen handitzea eragin zuten.

Eskaintza ez zen gai izan eskariaren gorakadak eskatzen zuen erritmoan hazteko eta, horren ondorioz, hornidura arazoak, botila-lepoak eta hornidura-gabeziak sortu ziren sektore jakin batzuetan. Hornidura-kateek, besteak beste, itsas garraiorako edukiontzien eskasia, gidaririk ez egotea, erdieroaleen eskasia eta Txinarekiko gehiegizko menpekotasuna pairatu dituzte.

## GESTIÓN ECONÓMICA

**Evolución de los mercados financieros en 2021**

El año 2021 fue un año de recuperación de la economía y también, en general, de los mercados financieros. El avance del proceso de vacunación en los países desarrollados permitió una apertura de las economías y un aumento de la movilidad. La recuperación del empleo junto con los planes de estímulo fiscal y una política monetaria muy laxa, hicieron posible un repunte de la demanda de bienes por parte de las familias. Por su parte, las restricciones de la oferta y las limitaciones de transporte generaron problemas de abastecimiento en numerosos sectores de actividad. El aumento de la demanda y la limitación de la oferta, añadido a los altos costes de la energía, se tradujeron en un repunte de la inflación. En la parte final del año, los Bancos Centrales empezaron a replantearse su política monetaria. China, por su parte, tuvo un año complicado con numerosas iniciativas regulatorias tratando de controlar el poder de las empresas tecnológicas y con una crisis en varias promotoras inmobiliarias importantes.

**Reaperturas de las economías, boom de demanda y problemas de suministros**

El proceso de vacunación permitió recuperar en parte la movilidad y reabrir las economías. La recuperación del empleo, el ahorro acumulado por las familias durante el periodo de confinamiento más las ayudas fiscales implementadas por los gobiernos provocaron un aumento considerable de la demanda de bienes.

La oferta fue incapaz de crecer al ritmo exigido por este aumento de la demanda, dando lugar a problemas de suministros, cuellos de botella y desabastecimientos en determinados sectores. Las cadenas de suministros han sufrido entre otros factores por la escasez de contenedores para el transporte marítimo, la falta de conductores, la escasez de semiconductores y la excesiva dependencia de China.





## 2021eko jardueraren laburpena

Errenta aldakorrari dagokionez, urtea esposizio handiarekin hasi zen, balioa handitzeko itxaropen onak zeudelako. Itxaropen horiek urrian gauzatu zirenez, lortutako mozkinen zati bat jasotzea erabaki zen, baina esposizio handia (% 30) mantenduz.

Errenta finkoari dagokionez, urtean 35 MMko epemugak egon ziren, horien zati bat baino ez zen inbertitu bonoetan. Likideziaren zati bat ABS erostera bideratu zen, eta moneta-aktiboen erosketak ere handitu egin ziren (enpresako ordaindukoak).

Halaber, aktibo alternatiboetan posizioak hartzeko politikarekin jarraitu zen, erosketa garbiak eginez higiezinetan, azpiegituretan eta, hein txikiago batean, private equity etan.

## Resumen de actuación en 2021

En renta variable se empezó el año con una exposición alta debido a las buenas expectativas de revalorización. Al materializarse dichas expectativas en octubre se decidió recoger parte de los beneficios realizados, pero manteniendo la exposición elevada (30 %).

En renta fija fue un año con vencimientos por importe de 35 MM, que solo parcialmente se reinvirtieron en bonos. Parte de la liquidez se destinó a comprar ABS y también se aumentaron las compras de activos monetarios (pagarés de empresa).

Asimismo, se continuó con la política de toma de posiciones en activos alternativos, con compras netas en inmuebles, infraestructuras y, en menor medida, private equity.

## Ondarearen banaketa

## Distribución patrimonio




## Inbertsioak Euskadin/Zuzeneko inbertsioak

Ondarearen % 15 Euskadin inbertituta dago. Erakundeak aberastasuna sortzen eta ingurune hurbila garatzen lagundu nahi du. Euskadin egindako inbertsio horren partidarik handiena euskal jaulkitzaile publikoen zor tituluetan dago.

Enpresak bultzatzeko arloan, Elkarkidetzak % 50 eko partaidetza du ORZA AIEn eta euskal enpresa-ehunaren sozietate ez kotizatuetan inbertsioak egiteko eratu zen. ORZAk partaidetzako enpresetan esku hartzen du, enpresa horietako administrazio kontseiluetan parte hartze aktiboa izanez eta partaidetzako enpresen artean sinergiak sor daitezen ezagutzak, kontaktuak eta harremanak bultzatuz. Konpromiso horri esker, Euskadin aberastasuna eta enplegua sortzen lagundu du Elkarkidetzak.

## Inversión en Euskadi/Inversiones directas

Un 15 % del patrimonio está invertido en Euskadi. De esta manera la entidad trata de ayudar a la creación de riqueza y al desarrollo del entorno más cercano. La partida más grande de esta inversión en Euskadi está colocada en títulos de deuda de emisores públicos vascos.

En el ámbito de la promoción empresarial, Elkarkidetza participa en un 50 % en ORZA AIE, que fue constituida para la inversión en sociedades no cotizadas del tejido empresarial vasco. ORZA interviene en la gestión de sus empresas participadas mediante una presencia activa en los Consejos de Administración de éstas, aportando conocimientos, contactos y relaciones entre las propias participadas que puedan generar sinergias. Fruto de este compromiso, desde Elkarkidetza se ha contribuido a la generación de riqueza y empleo en Euskadi.

## Inbertsio sozialki arduratsua

Inbertsio-prozesuan, Elkarkidetzak ingurumenarekin, gizartearekin eta erakundearen gobernuarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen ditu, finantza irizpideez gain, errentagarritasun/arriskua binomioari epe luzerako ekarpena egiteko asmoz.

Elkarkidetzak arlo horretan hartutako estrategiak honako irizpide hauek konbinatzen ditu:

## Inversión socialmente responsable

Elkarkidetza tiene en cuenta en su proceso de inversión aspectos o criterios medioambientales, sociales y de gobierno corporativo además de los criterios financieros, con un objetivo de contribución a largo plazo al binomio rentabilidad-riesgo.

La estrategia de Elkarkidetza en esta materia pasa por la combinación de criterios de:

| | | |
|---|---|---|
| Baztertzea<br>Exclusión | | Enpresak inbertsioen unibertsotik kanpo uztea, beren produktu, jarduera eta politikekin lotutako irizpideen arabera.<br>Exclusión de empresas del universo de inversión sobre la base de criterios relacionados con sus productos, actividades, políticas. |
| Barneratzea<br>Inclusión | "Best in class"<br>Mejor de la clase | Helburua da, ondarearen % 50a baino gehiago izatea nabarmentzen diren enpresa edo gobernuen balioetan. Kontuan izaten dugu inbertsio arduratsuaren ikuspegitik, euren lehiakideekin alderatuta nabarmentzen direla.<br>Objetivo de más del 50 % del patrimonio en valores de empresas o gobiernos que se colocan a la cabeza, desde la perspectiva de inversión responsable, en relación con su competencia. |
| | Inbertsio tematikoak<br>Inversión temática | Inbertsio zuzenduak edo tematikoak modu aktiboan egitean datza. Emaitza ekonomikoak sozialki desiragarriak diren beste emaitza batzuekin konbinatzean datza.<br>Consiste en hacer inversiones dirigidas o temáticas de una forma activa. Se trata de combinar los resultados económicos con otros resultados socialmente deseables. |
| Inplikazioa eta botoa<br>Implicación y voto | | Batzarretan botoa ematea da akziodunek enpresetan eragiteko eskura duten bitarteko nagusietako bat. Finantza-gaiez gain, gero eta gehiago bozkatzen dira gizarte, ingurumen eta gobernu gaiak.<br>El voto en las juntas es uno de los medios principales al alcance de los accionistas para influir en las empresas. Además de las cuestiones financieras, se someten a votación, cada vez más, asuntos sociales, ambientales y de buen gobierno. |
| Inpaktu inbertsioa<br>Inversión de impacto | | Nazio Batuen (Garapen Jasangarriko Helburua) GJH lortzeko, enpresek, diru sarrerei dagokienez egiten duten ekarpenaren bidez neur daitekeen eragin positiboa sortu nahi duten konpainietan inbertitzea.<br>Inversión en compañías que buscan generar un impacto positivo medible por la contribución que tienen las compañías en términos de ingresos a la consecución de los diferentes ODS (Objetivos deDesarrollo Sostenible) de Naciones Unidas. |

Aktibo bakoitzari ESG rating bat esleitzen zaio (Ingurumena, Gizartea, Gobernantza), kanpoko eragile espezializatuen metriketan edo kalifikazioetan oinarrituta. Ratingak A+ (hoberena) eta E (txarrena) artean ordenatzen dira. Banakako ratioekin rating bat kalkulatzen da aktibo mota bakoitzeko, eta rating global bat zorro osoarentzat. Ikus daitekeenez, inbertsio-zorroaren kalifikazioa ona da ESGren ikuspegitik.

A cada activo se le asigna un rating ESG (Medio ambiente, Social, Gobernanza) elaborado internamente en base a métricas o calificaciones de agentes especializados externos. Los ratings se ordenan de A+ (el mejor) a E (el peor). Con los ratios individuales se calcula un rating por cada clase de activo y un rating global de toda la cartera. Como se puede observar, la calificación de la cartera de inversiones desde un punto de vista ESG es buena.





| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LIKIDEZIA LIQUIDEZ | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| ERRENTA FINKOA RENTA FIJA | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| ERRENTA ALDAKORRA RENTA VARIABLE | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| ARRISKU KAPITALA CAPITAL RIESGO | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| HIGIEZINAK INMUEBLES | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| AZPIEGITURAK INFRAESTRUCTURAS | n.d. | E | D | C | B | A | **A+** |
| BESTELAKO ALTERNATIBOAK ALTERNATIVOS OTROS | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| EGITURATUAK ESTRUCTURADOS | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |
| **ELKARKIDETZA** | n.d. | E | D | C | B | **A** | A+ |

## Errentagarritasuna

Elkarkidetzak % 8,82ko errentagarritasuna izan du 2021ean. Horren arabera, azken 10 urteetako errentagarritasun urtekotua % 5,40koa da.

## Rentabilidad

En 2021 la rentabilidad de Elkarkidetza ha sido 8,82 %. Con este dato, la rentabilidad anualizada de los últimos 10 años se queda en 5,40 %.

## Pentsio-funtsekin konparaketa

Elkarkidetzaren % 8,82ko errentagarritasunak nabarmen gainditu zuen 2021eko **enplegu-planen** batez bestekoa, % 6,01ekoa izan baitzen. Balio igoera horri esker, azken 15 urteotan lortutako errentagarritasun urtekotua % 4,18koa da, eta, hortaz, aise gainditzen du enplegu funtsek lortutako batezbestekoa.

## Comparación con fondos de pensiones

La rentabilidad de Elkarkidetza del 8,82 % ha batido claramente a la obtenida de media por los **planes de empleo** en 2021 que ha sido de 6,01 %. Con esta revalorización, la rentabilidad anualizada lograda en los últimos 15 años se sitúa en el 4,18 %, muy por encima de la media lograda por los fondos de empleo.

| | 15 urte años | 10 urte años | 5 urte años | 3 urte años | 1 urte año |
|---|---|---|---|---|---|
| ELKARKIDETZA | 4,18 % | 5,40 % | 4,61 % | 6,85 % | 8,82 % |
| FUNTSEN batez bestekoa Media FONDOS | 2,62 % | 3,75 % | 2,46 % | 4,61 % | 6,01 % |
| POSIZIOA POSICIÓN | 28/840 | 77/1045 | 74/1138 | 124/1171 | 159/1214 |
| KUARTILA CUARTIL | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |

## Inflazioarekin konparaketa

Azkenik, Elkarkidetzaren errentagarritasunak 3, 5, 10 eta 15 urteko inflazioa ere erraz gainditzen du.

## Comparación con inflación

Por último, la rentabilidad de Elkarkidetza supera también de forma holgada la inflación a 3, 5, 10 y 15 años.




## Diseinu teknikoa: mozkinetan parte hartzea eta kaudimena

2021ean lortutako errentagarritasun bikainean oinarrituta, pentsioak hobetu ahal izango dira eta kaudimena indartuko da. Batzar Nagusia arduratzen da ekitaldiko emaitzaren banaketa onesteaz, hau da, Batzar Nagusiak onesten du mozkinetako partaidetzaren hornidura eta funts propioak hornitzera bideratzen den urteko errentagarritasunaren banaketa.

• **Mozkinetako partaidetza:** Prestazioen araudian ezarritakoa betez, horretarako eskubidea duten pentsiodunen pentsioak gehieneko portzentajean igoko dira. Zehazki, eta pentsioa kalkulatzeko aplikatutako interes-tasa teknikoaren arabera % 0,50, % 1,75 edo % 2,25, pentsioak % 2, % 0,75 edo % 0,25 igoko dira, hurrenez hurren.

• **Kaudimena,** pentsiodunen hornidura matematikoaren arabera konprometituta ez dauden funts propioak: nabarmen igoko da eta, horri esker, egoera hobean aurre egin ahal izango diegu jasan behar ditugun merkatuko arriskuei.

## Diseño técnico: participación en beneficios y solvencia

En base a la magnífica rentabilidad obtenida este año 2021 se podrán mejorar pensiones y se fortalecerá la solvencia. La Asamblea General es la encargada de aprobar la distribución del resultado del ejercicio, esto es, la rentabilidad obtenida durante el año y que se destina a dotar la provisión de la participación en beneficios y a los fondos propios.

• **Participación en beneficios:** verán incrementadas sus pensiones en el porcentaje máximo aquellos pensionistas con derecho conforme al Reglamento de prestaciones. En concreto, y dependiendo del interés técnico aplicado en el cálculo de la pensión 0,50 %, 1,75 % o 2,25 %, las pensiones se incrementarán en el 2 %, 0,75 % o 0,25 % respectivamente.

• **Solvencia,** fondos propios no comprometidos en relación con la provisión matemática de pensionistas: aumentará de forma sustancial lo que nos permitirá afrontar en una mejor posición los riesgos de mercado a los que estamos expuestos.





## Pentsiodunen hornidura matematikoa 2021/12/31

Etorkizuneko konpromisoak etengabe ebaluatzeko konpromisoan oinarrituta, pentsiodunen hornidura matematikoaren kalkuluan honako hau nabarmendu behar da:

• % 1,87ko interes teknikoa aplikatu da, merkatuaren errentagarritasun-aurreikuspenekin bat egiteko.

• biziraupen-taula berrien bizi-itxaropenaren % 75 sartu da.

## Provisión matemática de pensionistas 31/12/2021

En base al compromiso de evaluación permanente de los compromisos futuros hay que destacar que en el cálculo de la provisión matemática de pensionistas:

• se ha aplicado un interés técnico del 1,87 %, en aras a confluir con las previsiones de rentabilidad del mercado.

• se ha incluido el 75 % de la esperanza de vida de las nuevas tablas de supervivencia.

## Estatutuak eta prestazioen erregelamendua aldatzea

Gobernu Organoek, Batzar Nagusiak eta Gobernu Batzordeak aho batez onartu zituzten aldaketa guztiak.

**Hauek dira proposatutako aldaketa nagusiak:**

- Prestazioak biziarteko errenta gisa ordaintzeko konpromisoa are gehiago indartu da, orain **enpleguko lehentasunezko BGAE** bat baita. Hauek dira **oinarrizko printzipioak: jatorria enpresa hitzarmenean edo -itunean, diskriminaziorik eza bazkideak sartzerakoan eta prestazioa, ahal dela, errenta gisa jasotzea.**

- **Kapital gehigarria:** alde batetik, aseguru konpainien polizetan aurreikusitako **preskripzio epe** bera, **bost urtekoa,** araudian sartzeko; izan ere, 2020. urtetik, zenbatekoa % 100ean aseguratuta du aseguru-etxe batek; eta bestetik, **kostua murriztea,** ekarpenaren % 10etik **% 8ra,** oro har, eta % 15etik % 12ra, bereziki. Hori guztia orain arte erabili den prestazioen eredua aldatu gabe.

- **Zuzeneko administrazio-gastuak murriztu** egin dira, % 0,32tik **% 0,29ra** igaro baitira, eta IKE edo AKEko inbertsioko komisio inplizituak igo egin dira, % 0,33tik % 0,36ra, eta administrazio-gastu guztiak % 0,65ean mantendu dira.

**Estatutuen** testu bategina: 1, 2, 7, 14, 15, 16, 17, 42, 49, eta 50 artikuluak aldatzea.

**Prestazioen Erregelamenduaren** testu bategina: 1, 3, 5, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 14, 20, 29, 35, 36 artikuluak eta Bosgarren Xedapen Iragankorra aldatzea.

## Modificación de los estatutos y reglamento de prestaciones

Los órganos de gobierno, Asamblea General y Junta de Gobierno, adoptaron por unanimidad todos los cambios.

Las modificaciones propuestas más importantes son:

- Se ha reforzado aún más el compromiso de pago de las prestaciones en forma de rentas vitalicias, dado que ahora es una **EPSV de empleo preferente.** Cuyos **principios básicos son el origen en el convenio o pacto de empresa, no discriminación en la incorporación de los socios y la percepción de la prestación preferentemente en forma de renta.**

- **Capital adicional:** por un lado, para incluir en la normativa el mismo plazo de **prescripción** previsto en las pólizas de las compañías de seguros, **cinco años,** dado que desde 2020 el importe está asegurado al 100% por una compañía aseguradora; y por otro, **reducir el coste** pasando del 10% de la aportación **al 8%,** con carácter general, y del 15% al 12% con carácter especial. Todo ello sin que se modifique el modelo de prestaciones del que se ha disfrutado hasta el momento.

-Se **reducen los gastos de administración directos** que pasan del 0,32% al **0,29%** y suben las comisiones implícitas en inversión en IIC o ECR que pasan del 0,33% al 0,36%, manteniendo en 0,65% el total de gastos de administración.

Texto refundido de los **Estatutos:** modificación de los artículos 1, 2, 7, 14, 15, 16, 17, 42, 49, y 50.

Texto refundido **Reglamento de prestaciones:** modificación de los artículos 1, 3, 5, 6, 7, 8, 11, 12, 13, 14, 20, 29, 35, 36, y Disposición Transitoria Quinta.

## Beste jarduera-ildo batzuk

Sektore Publikoko Pentsio Erakundeen Europako Elkarteko (SPPEEE) kide gisa eta Zuzendaritza Kontseiluan zein Idazkaritza Nagusian ordezkariak edukita, Elkarkidetzak lehen eskuko harremana eduki ahal izan du Europan pentsioen alorrean egiten ari diren guztiarekin.

2021ean gertutik jarraitu dira, besteak beste:

- Pentsio-sistemen erreformak hainbat herrialdetan, COVID- 19ak erakundeen jardueran duen eragina eta erakundeen jarduera pandemiaren baldintzetara nola egokitu duten barne.

- Europako erakundeen jarduera, batez ere Legebiltzarrarena, Batzordearena eta Aseguru eta Enplegu Pentsioetarako Europako Agintaritzarena (EIOPA).

- Lehen mailako nazioarteko erakundeen argitalpenak eta txostenak: Europar Batasuna, MMGPI, NDF, ELGA...

- Kanpoko aholkularitza-enpresa baten (Addeno, Suedia) laguntzarekin, elkartea birformulatzea, inguruabar berrien, erakundeen eskaeren eta elkarlaneko teknologia berrien erabilpenaren arabera egokitzeko.

Elkarkidetzan kudeaketa-eredu bat sortzea lortu da. Bertan, hiru kudeaketa-ereduren tresnek parte hartzen dute: Euskaliten Kudeaketa Aurreratua, ISO 9001:2015 eta GRC (Gobernu Ona, Arriskuen Kudeaketa eta Araudia Betetzea). Batak besteak sostengatzen eta bultzatzen ditu, eta printzipio honen aplikazioak efektu biderkatzailea sortzen du, eredu bakoitzaren ahalbide indibidualetatik haratago, bere emaitza hobetuz.

2021eko irailean, egin da ELKARKIDETZA BGAEaren Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren **UNE-ISO/IEC 9001:2015 arauaren lehen jarraipen bisita.** Bertan, erreferentziazko arauan zehaztutako baldintzen betetze-maila ebaluatu zen, eta horren emaitza ziurtagiriari eustea izan zen. Bureau Veritasek adierazi zuen Kudeaketa Sistema eraginkorra dela eta finkatua dagoela eta, betekizunak betetzen direnaren ebidentzia orokorrak daudela. Ez da inolako ezadostasunen berri ematen, eta ez da oharrik detektatu.

**Arriskuak kudeatzeko sistema** guztiz ezarrita dago prozesuetan, eta hura hobetzen jarraitzen dugu.

## Otras líneas de actuación

Como miembros de la Asociación Europea de Instituciones de Pensiones del Sector Público (EAPSPI) y con representantes tanto en el Consejo de Dirección como en la Secretaría General, Elkarkidetza ha podido mantener contacto de primera mano con la actualidad europea en el campo de las pensiones.

Durante 2021 se han seguido de cerca, entre otras:

- Las reformas de los sistemas de pensiones en varios países, incluyendo la influencia de la COVID 19 en la actividad de las instituciones y cómo estas han adaptado su actividad a las circunstancias de la pandemia.

- La actividad de las instituciones europeas, básicamente Parlamento, Comisión y la Autoridad Europea para los Seguros y las Pensiones de Empleo (EIOPA).

- Publicaciones e informes de organismos internacionales de primera línea: Unión Europea, MCFAIGPI (anteriormente MMGPI), FMI, OCDE…

- Con la ayuda de una consultoría externa (Addeno, Suecia), reformulación de la asociación en base a las nuevas circunstancias, adaptación a las demandas de las instituciones y utilización de nuevas tecnologías colaborativas.

Se ha conseguido crear un modelo de gestión en Elkarkidetza, donde participan las herramientas de tres modelos de gestión: Gestión Avanzada de Euskalit, ISO 9001:2015 y GRC (Buen Gobierno, Gestión de riesgos y cumplimiento normativo). Uno sostiene e impulsa a los otros, y la aplicación de este principio genera un efecto multiplicador, más allá de las posibilidades individuales de cada uno de los modelos, perfeccionando su resultado.

En el año 2021 se ha realizado en septiembre la **1ra. Visita de Seguimiento a la norma UNE-ISO/IEC 9001:2015,** del Sistema de Gestión de Calidad de ELKARKIDETZA EPSV, donde se evaluó el grado de cumplimiento respecto a los requisitos especificados en la norma de referencia y cuyo resultado fue mantener la certificación. Bureau Veritas manifestó que se observa un Sistema de Gestión de la Calidad eficaz, consolidado y con evidencias generalizadas de cumplimiento de requisitos. No se reportan no conformidades y no se han detectado observaciones.

El sistema de **gestión de riesgos** está plenamente implantado en los procesos y continuamos mejorándolo. Anualmente se revisa el Texto Refundido: **Política de Buen Gobierno, Gestión de Riesgos y Cumplimiento normativo.**



Urtero berrikusten da honako testu bategin hau: **Gobernu Onaren, Arriskuen Kudeaketaren eta Arauak Betetzearen Politika.**

## Aktiboa Activo

| | 2021 |
|---|---|
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk<br>Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 97.858 |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza aktiboak<br>Activos financieros mantenidos para negociar | 371.296 |
| Galeretan eta irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten beste finantza aktibo batzuk<br>Otros activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias | 598.819 |
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak<br>Préstamos y partidas a cobrar | 5.575 |
| Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak<br>Inversiones mantenidas hasta el vencimiento | 187.798 |
| Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan<br>Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias | 8.859 |
| Ibilgetu ukiezina<br>Inmovilizado intangible | 0 |
| Partaidetzak elkarteko erakundeetan eta kideetan<br>Participaciones en entidades del grupo y asociadas | 56.967 |
| GUZTIRA AKTIBOA<br>TOTAL ACTIVO | 1.327.172 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Pasiboa eta ondare garbia Pasivo y patrimonio neto

| | 2021 |
|---|---|
| Pasiboa<br>Pasivo | |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza pasiboak<br>Pasivos financieros mantenidos para negociar | 0 |
| Debituak eta ordaindu beharreko partidak<br>Débitos y partidas a pagar | 3.446 |
| Hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas | 1.255.750 |
| PASIBOA GUZTIRA<br>TOTAL PASIVO | 1.259.196 |
| Ondare Garbia<br>Patrimonio Neto | |
| Funts propioak<br>Fondos propios | 67.976 |
| Mutuaren funtsa<br>Fondo mutual | 9.015 |
| Erreserbak<br>Reservas | 29.715 |
| Ekitaldiaren emaitza<br>Resultado del ejercicio | 29.246 |
| ONDARE GARBIA GUZTIRA<br>TOTAL PATRIMONIO NETO | 67.976 |
| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA<br>TOTAL PASIVO Y PATRIMONIO NETO | 1.327.172 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude — Cantidades expresadas en miles de euros

## Emaitzen kontua Cuenta de resultados

| | 2021 |
|---|---|
| Ekitaldiari inputaturiko kuotak, berraseguruko garbiak<br>Cuotas imputadas al ejercicio, netas de reaseguro | 45.351 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak<br>Ingresos del inmovilizado material y de las inversiones | 111.871 |
| Beste sarrera tekniko batzuk<br>Otros ingresos técnicos | 105 |
| Ekitaldiko prestazioak, berraseguruko garbiak<br>Prestaciones del ejercicio, netas de reaseguro | -50.391 |
| Berraseguruko beste hornidura tekniko garbien aldaketa<br>Variación de otras provisiones técnicas netas de reaseguro | 4.820 |
| Ustiapen gastu garbiak<br>Gastos de explotación netos | -2.767 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak<br>Gastos del inmovilizado material y de las inversiones | -1.386 |
| Aparteko gastuak<br>Gastos excepcionales | 0 |
| USTIAPEN EMAITZAK % 8,82KO ERRENTAGARRITASUNA<br>RESULTADOS DE EXPLOTACIÓN - RENTABILIDAD 8,82 % | 107.603 |
| Hornidura aktuarialerako ekitaldiko zuzkidura<br>Dotación ejercicio provisión actuarial | -7.514 |
| Definituriko ekarpen hornidurako ekitaldiko zuzkidura<br>Dotación ejercicio provisión aportación definida | -70.843 |
| EKITALDIAREN EMAITZA<br>RESULTADO DEL EJERCICIO | 29.246 |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude    Cantidades expresadas en miles de euros



## Estaldura tasa, ekitaldiko emaitza-banaketaren ondoren
## Tasa de cobertura después de la distribución del resultado del ejercicio

| PASIBOAK / PASIVOS | 2021 |
|---|---|
| Mutuako funtsa<br>Fondo Mutual | 9.015 |
| Banaketa egin ondoren, erreserbak eta beste hornidura tekniko batzuk<br>Reservas y otras provisiones técnicas después del reparto | 57.110 |
| GUZTIRA<br>TOTAL | 66.125 |
| Pasiboen hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas de pasivos | 381.130 |
| Pasiboen estaldura<br>Cobertura de pasivos | 17,350 % |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa (% 4)<br>Exceso sobre el mínimo legal exigido (4 %) | 13,350 % |

| AKTIBOAK / ACTIVOS | 2021 |
|---|---|
| Aktiboen segurtasun marjina<br>Margen de seguridad de activos | 1.140 |
| GUZTIRA<br>TOTAL | 1.140 |
| Aktiboen hornidura teknikoak<br>Provisiones técnicas de activos | 857.677 |
| Aktiboen estaldura<br>Cobertura de activos | 0,130 % |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa (% 0,075)<br>Exceso sobre el mínimo legal exigido (0,075 %) | 0,055 % |

Zenbatekoak mila eurotan adierazita daude    Cantidades expresadas en miles de euros

Elkarkidetzak, indarrean dauden biziraupen taulak eta gaur egungo errentagarritasun egoerarekin bat datozen interes tipo teknikoa eta pentsioen hobekuntza erabiltzen ditu. Horrela, etorkizunari, aktiboentzat eta onarturiko prestazioentzat arrisku gutxiagorekin aurre egin ahal izango zaio.

Elkarkidetza utiliza las tablas de supervivencia vigentes y un tipo de interés técnico y una mejora de pensiones más acordes con la situación actual de rentabilidad. Permitiendo todo ello afrontar el futuro con menores riesgos para los activos y las prestaciones reconocidas.

## Kontu-ikuskaritza

## Informe de auditoría


KPMG

Urteko kontuen ikuskapen-txostena, kontu-ikuskari independente batek egina

## Iritzia

Elkarkidetza, Lehentasunezko Enpleguko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen (Erakundea) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Horiek bere baitan hartzen dituzte 2021eko abenduaren 31ko balantzea, eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta memoria.

Gure iritzian, erantsita doazen urteko kontuek, alderdi garrantzitsu guztietan, zehaztasunez jasotzen dituzte Erakundearen 2021eko abenduaren 31ko ondarea eta finantza-egoera, baita data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak ere, aplikatzekoa den finantza-informazioari buruzko esparru arauemailearen —memoriaren 2(a) oharrean identifikatzen da— eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitate-printzipioen eta -irizpideen arabera.

## Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria de Empleo Preferente (la Entidad), que comprenden el balance a 31 de diciembre de 2021, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Entidad a 31 de diciembre de 2021, así como de sus resultados y flujos de efetivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha ficha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2(a) de la memoria) y, en particular, con los principios criterios contables contenidos en el mismo.





## 2022KO KUDEAKETA PLANA

## PLAN DE GESTIÓN 2022

### Estrategia

Erakundearen estrategiarekin aurreikusitako helburu estrategikoak eta ekintzak zehaztu dira.

### Estrategia

Se detallan los objetivos estratégicos y acciones previstas con la Estrategia de la Entidad.

| | Helburu estrategikoa<br>Objetivo estratégico | Aurreikusitako ekintzak<br>Acciones previstas |
|---|---|---|
| HEOE1 | Errentagarritasuna eta kaudimena bermatzea<br>Garantizar la rentabilidad y la solvencia | Bazkide babesleen eta bazkide aktiboen kopurua handitzea.<br>Incrementar el número de socios protectores y socios activos. |
| HEOE2 | Eredua hobetzea<br>Perfeccionar el modelo | Estatuko eta autonomia erkidegoetako ekimen berrien jarraipena, ebaluazioa eta jarrera:<br>1) Sustapen publikoko pentsio planak eta plan sinplifikatuak<br>2) BGAEn jardueren dekretuaren erreforma<br>3) Zerga arau berriak<br>Seguimiento, evaluación y posicionamiento ante nuevas iniciativas estatales y autonómicas:<br>1) Planes de Pensiones de promoción pública y Planes Simplificados<br>2) Reforma Decreto de Actividades de las EPSVs<br>3) Nuevas normas tributarias |
| | | Komunikazio-politika diseinatzea.<br>Diseño de la Política de comunicación. |
| HEOE3 | Aliantzak eta/edo lankidetzak hobetzea<br>Perfeccionar las alianzas y/o colaboraciones | EAPSPI: Elkartearen egitura eta funtzionamenduaren eraldaketa estrategikoa burutzen laguntzea.<br>EAPSPI: Contribuir a culminar la transformación estratégica de la estructura y funcionamiento de la asociación. |
| HEOE7 | Eraldaketa digitala, eraginkorragoak eta malguagoak izateko<br>Transformación digital para ser más eficientes y flexibles | Kudeaketa Digitalaren ereduaren diseinuan aurrera egiteko neurri berriak:<br>1) APP Elkarkidetza sortzea<br>2) Telelanerako baliabideak sendotzea<br>3) Prestakuntza espezifikoa<br>Nuevas medidas para avanzar en el diseño del modelo de Gestión Digital:<br>1) Creación APP Elkarkidetza<br>2) Refuerzo de los recursos para el teletrabajo<br>3) Formación específica |
| | | Zibersegurtasuna: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailarekin lankidetzan aritzea azpiegituren segurtasunerako Euskal Planean eta ELKARKIDETZAN aplikatzea.<br>Ciberseguridad: Colaboración con el Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco en el Plan Vasco de seguridad de infraestructuras sensibles y su aplicación a ELKARKIDETZA. |
| | | Zibersegurtasuna: Egon daitezkeen intrusioen analisia egitea, sistemen segurtasun perimetrikoaren konfigurazioan ahuleziak detektatzeko.<br>Ciberseguridad: Realizar un análisis de posibles intrusiones para detectar debilidades en la configuración de la seguridad perimétrica de los sistemas. |
| HEOE8 | Pozik dauden pertsonak izatea<br>Contar con personas satisfechas | Euskara Sustatu taldearen bidez euskararen presentzia bermatzea.<br>Garantizar la presencia del euskera a través del grupo Euskara Sustatu. |
| HEOE10 | Erakunde sozialki arduratsua izatea<br>Ser una organización socialmente responsable | Gizarte-erantzukizun korporatiboaren politika eta ingurumen-politika berriz diseinatzea.<br>Rediseñar la política de responsabilidad social corporativa y política medioambiental. |

Jarraian, ondarearen 2022rako banaketa azaltzen da, aktibo motaren eta errentagarritasunaren arabera, % 2,3an kokatuz.

A continuación, se expone la distribución del patrimonio por tipo de activo y rentabilidad estimada para el año 2022, situándose en un 2,3 %.




Azpimarratu, 2022rako administrazio-gastuak, Prestazioen Erregelamenduaren 14. Artikuluaren arabera, % 0,65 finkatu direla. Xehakapena ondorengoa da; administrazio gastuak: % 0,29 eta IKEetan edo AKEetan inbertitzeko komisio inplizituak: % 0,36.

Resaltar, los gastos de administración para el año 2022, conforme al Artículo 14. del Reglamento de Prestaciones, en el que se fija en el 0,65 %. El desglose es gastos de administración: 0,29 % y comisiones implícitas en inversión en IIC o ECR: 0,36 %.

**2022rako ekarpen eta gutxieneko pentsioen eguneratzea**

**Actualización de aportaciones y pensiones mínimas para el año 2022**

Abenduaren 30eko Gobernu Batzordeak erabaki zuen:

1. 2022rako urteko oinarriak eta ekarpenak % 2 igotzea, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako gehieneko mugaren arabera. Ahal dela, hurrengo urteetan berreskuratzea, aurreko ekitaldiko azarotik aurtengo azarora bitartean izandako Euskal Autonomia Erkidegoko KPIaren eta aplikatutako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako gehieneko mugaren arteko aldea.

Hileko ekarpenak honela finkatzen dira:

La Junta de Gobierno del 30 de diciembre acordó:

1º. Incrementar las Bases anuales y las aportaciones para el año 2022 en un 2 %, conforme al límite máximo establecido en la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 2022. Recuperar en los próximos años, siempre que sea posible, la diferencia entre el I.P.C. de la Comunidad Autónoma de Euskadi entre noviembre del ejercicio en curso y noviembre del ejercicio anterior y el límite máximo establecido en la Ley de Presupuestos Generales del Estado aplicado.

Las aportaciones mensuales quedan fijadas del siguiente modo:

| | | Hileko ekarpena Aportación mensual | | |
|---|---|---|---|---|
| Taldea Grupo | 2022-Urteko oinarriak Bases anuales-2022 | 8 % | 7 % | 6 % |
| A1 | 51.725,33 € | 147,79 € | 129,31 € | 110,84 € |
| A2 / B | 42.238,00 € | 120,68 € | 105,60 € | 90,51 € |
| C1 | 34.654,67 € | 99,01 € | 86,64 € | 74,26 € |
| C2 / EP | 28.966,00 € | 82,76 € | 72,42 € | 62,07€ |



2. Aurreko ekitaldiko azarotik aurtengo azarora bitartean izandako Euskal Autonomia Erkidegoko KPIarekin igotzea (% 5,10), urteko borondatezko ekarpenaren gehieneko muga eta Prestazioen Erregelamenduaren 12. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian, hurrenez hurren, jasotako hileko gutxieneko pentsioak. Honela geratuko dira:

2º. Incrementar con el I.P.C. de la Comunidad Autónoma de Euskadi entre noviembre del ejercicio en curso y noviembre del ejercicio anterior (5,10 %) el límite máximo de aportación voluntaria anual y las pensiones mínimas mensuales recogidas respectivamente en el artículo 12 y en la Disposición Adicional Segunda del Reglamento de prestaciones, quedando las mismas como se indica a continuación:

| Gehieneko borondatezko ekarpenak eta gutxieneko pentsioak 2022<br>Aportaciones voluntarias máximas y Pensiones mínimas 2022 | |
|---|---|
| Borondatezko urteko gehieneko ekarpena<br>Máximo aportación voluntaria anual | 4.399,00 € |
| Hileko gutxieneko pentsioa 12. artikulua<br>Pensión mínima mensual Artículo 12 | 111,00 € |
| Hileko gutxieneko pentsioa Bigarren Xedapen Gehigarria<br>Pensión mínima mensual Disposición Adicional Segunda | 65,00 € |

2022ko apirilaren 7an Batzar Nagusian hartutako akordioak

Aho batez, honako hau erabaki zuten:

- Batzar Nagusian zein Gobernu Batzordean ordezkatutako batzordekideen kargu-uztea eta izendapena.

- Gobernu Batzordearen kudeaketa, Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta 2021eko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko emaitza banatzeko proposamena.

- 2022ko ekitaldirako Kudeaketa Plana, aurrekontua eta administrazio gastuen ehunekoa.

- Elkarkidetza lehentasunezko Enpleguko BGAEko auditoreak izendatzea, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietarako, “KPMG Auditores, S.L.” auditoretzarekin.

Acuerdos adoptados por la Asamblea General celebrada el 7 de abril de 2022

Acordó por unanimidad de sus miembros:

- El cese y nombramiento de los representantes sustituidos en la Asamblea General y Junta de Gobierno.

- La gestión de la Junta de Gobierno, las Cuentas Anuales, el Informe de Gestión y la propuesta de distribución del resultado del ejercicio cerrado a 31 de diciembre de 2021.

- El Plan de Gestión, presupuesto y porcentaje de gastos de administración para el ejercicio 2022.

- Designar auditores de Elkarkidetza EPSV de Empleo Preferente, para los ejercicios 2022, 2023 y 2024 a la firma de auditoría “KPMG Auditores, S.L.”.

ARRETA
HOBEA IZATEKO
**hitzordua eskatu**

PARA UNA
MEJOR ATENCIÓN
**pide cita previa**

**www.elkarkidetza.eus**

**ARABA/ÁLAVA**
Ramón y Cajal, 7-9
01007 Vitoria-Gasteiz
**Tel.: 945 14 11 41**
araba@elkarkidetza.eus

**BIZKAIA**
Gardoqui, 2
48008 Bilbao
**Tel.: 94 415 55 78**
bizkaia@elkarkidetza.eus

**GIPUZKOA**
Mendeurren Plaza, 6
20006 Donostia-San Sebastián
**Tel.: 943 43 02 56**
gipuzkoa@elkarkidetza.eus